

## PRENTSA OHARRA

### Urtearen azken hiruhilekoan Guggenheim Bilbao Museoak indartu egingo du bere 25. urteurrenaren ospakizuna

2022ko urriaren 18an 25 urte beteko dira Guggenheim Bilbao Museoa inauguratu zenetik. Hala, artearen eta kulturaren arloan orain arte garatutako ospakizun-ekitaldien askotariko programaren ondoren, eta bisitarietarako dagokien errekor historikoa hautsi duen udaldi hau amaitu berri denean, Museoak bere urteurrenaren ospakizunean sakonduko du irailtik abendura bitartean.

Dagoeneko egin diren moduan, datozen hilabeteetan izango diren ekitaldiek urteurren honen inspirazio diren balioei erantzuniko diete. Honakoak dira: ospakizuna, Museoaren Bilduma balioan jartzea, esker ona, inklusibitatea, bai eta batasuna, harrotasuna eta pertenezia sendotzea ere, etorkizuneko eraldaketa eta proiektuak ahaztu gabe, denak ere ospakizun honek goiburua duen leman islatuak: “Artea etorkizunerako inspirazio”.

Jarraian zehazten dira datozen hilabeteetarako programaturako ekitaldietako batzuk:

#### Francisco Escuderoen *3. sinfonia (Sinfonia mitikoa)* (irailak 25)

Interpreteak: Bilboko Koralko Haurren Korua, Ensemble Kuraia, Andoni Aleman (narratzailea).  
Museoko Atria

*3. sinfonia (Sinfonia mitikoa)* Francisco Escudero konpositorearen azken sorkuntza-etapako obra handienetako bat da, zalantzarik gabe. Lan harrigarria, erabilitako soinu- eta ahots-baliabideengatik, baita musikaren eta literaturaren elementu heterogeneoak —haietako asko euskal folkloretik hartuak— abangoardiako musikarekin modu miresgarrian uztartzeagatik. Euskal mitologiatik edaten du obrak, hain zuzen ere Jose Miguel Barandiaranek bildutako kontakizunetatik, eta hitzak euskaraz dira erabat. Museoak bezalaxe, Ensemble Kuraia ere 25. urteurrena ospatzen duen urte honetan.

#### Uraren ekologiak (urriak 6)

Museoko Entzungela

Guggenheim Bilbao Museoak nazioarteko sinposio bat hartuko du “Uraren ekologiak” gaitzat hartuta. Topaketak haxe du helburua: ekosistemak zaintzeko eta lehengoratzeko premiari erantzuteko eremu artistikoaren, zientifikoaren eta teknologikoaren lankidetzak duen garrantzia nabarmentzea. Ur-inguruneetan enfasi berezia jarrita, kontuan izanik gizakiok eta beste espezie batzuek bizirauteko ezinbestekoak direla, jardunaldiak diziplinen arteko elkarrizketa eta lankidetzak sustatzea eta maila transakzionaletan baterako lan-eremuak identifikatzea du xede, Europako panoraman diren aditu nagusietako batzuk bilduta.

Horretarako, sinposioak Europako Batzordearen STARTS4Water ekimenaren eta bertan kide diren erakundeen partzuergoaren lankidetzaz izango du. Erakunde horietako batzuk hauek dira, Cittadellarte – Fondazione Pistoletto (Italia), Thyssen-Bornemisza Art Contemporary – TB21 (Espainia/Austria), V2\_Lab for the Unstable Media (Herbehereak), BOZAR eta Gluon (Belgika); haiek ordezkatzuz zenbait hizlari izango dira sinposioan.

Deitutako ikerlariei eta nazioarteko organismoetako agenteei euskal lurraldeko figurak gehituko zaizkie, kontuan izanik hausnarketarako funtsezko gunea dela hau ur-ekonomiekin duen lotura historiko bereziagatik, bai itsas ingurunean bai ibaikoan. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Cristina Iglesias artistak foroan izango duen parte-hartzea; haren obra bi Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduman daude. Etortzekoak diren beste parte-hartzaile batzuk honako hauek dira: Mark Ijzerman artista; Paolo Naldini, Cittadellarte – Fondazione Pistolettoko Zuzendaria, eta Amalia Zepou, Atenasko alkateorde ohia.

### *The Missing Element* (urriak 14, 15, 16, 17)

Bilboko kaleak; Museoko kanpoaldea, Atria, Entzungela

Bizitasun handiko jarduera-sorta horretan, New Yorkeko Solomon Guggenheim Museoak garatutako Works & Process programan parte hartzen duten dantzarietako batzuek hainbat diziplina uztartuko dituzte –besteak beste rap, *beatbox* eta *break dance*– Museoaren arkitektura murgiltzailea agertoki hartuta. Ikuskizun erabat garaikide hori hiriko zenbait gunetan eta Museoaren barnealdean garatuko da.

### Pop-up emanaldiak Bilbon:

- Urriak 14: Moyua plazan eta Bizkaiko Foru Aldundi aurrean (12:00); Areatzako zubian eta Arriaga plazan (18:30).
- Urriak 15: Plaza Barrian (12:30); Udaletxeko zubian eta Udaletxe aurrean (18:30).

### Museoko emanaldiak:

- Urriak 16: 12:30 eta 20:30
- Urriak 17: 18:30

### Guggenheim Fundazioen Patronatua eta 25. urteurreneko gala-afaria (urriak 17)

Urteurrena dela eta, Bilboko, New Yorkeko eta Veneziako Guggenheim Museoen Patronatuen batzarra hartuko du Museoak.

Gau horretan bertan Museoaren urteko afariaren edizio berezi bat izango da.

### *Sekzioak/Intersekzioak. Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumak 25 urte erakusketaren inaugurazioa (urriak 18)*

Komisarioak: Lekha Hileman Waitoller, Manuel Cirauqui, Geanine Gutierrez-Guimarães, Lucía Agirre eta Maite Borjabad, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradunak

Babeslea: BBK

Museoko areto guztiak

Museoaren Bildumaren erakusketa handi bat izango da, erakusketa-gune guztiak hartuta gaika aurkeztuko dituen Museoaren funtsak; hala, askotariko lengoia artistikoen arteko konexio berriak azalaraziko dira, eta nabarmendu egingo dira arte modernoaren historian izandako mugari eta joera nagusiak, denak ere Bilduma osatzen duten obrek modu paradigmaticoan ordezkatuak. Bildumaren aparteko alderdi ugarien artean, berriro ere jendaurrean aurkeztuko diren formatu handiko eta kokapen zehatzeko obrak gailentzen dira.

## **Asteburuan doan zabalik (urriak 22 eta 23)**

Urtero bezala, eta bereziki aurten, 25. urteurrena izaki, inaugurazioaren urtemugara gerturatzean Museoa dohainik egongo da zabalik urriaren 22an, larunbatarekin, eta urriaren 23an, igandearekin.

## **Ekintza artistikoa Museoaren Lagunekin (urriak 25)**

Teknologia-babeslea LG-Oled

Museoko Atria

Museoaren Lagunei 25 urte hauetan izandako harreman estua eta erakutsitako leialtasuna eskertu nahian, Cecilia Bengolea artista argentinarraren ekintza performatibo berri bat egingo da Museoan, eta Museoaren 450 Lagun inguruk parte hartuko dute bertan.

Bideo-instalazioa eta performancea uztartzen dituen artista horrek *site-specific* ekintza bat aurkeztuko du Museoaren lekurik adierazgarrienean: Atrioan. Lau dantzarik eta DJ batek lagunduta, performanceak ibilbide bisual bat osatuko du artxiboko bideoen bitartez eta dancehall mugimenduen erritmora. Hala, irudi horiek Frank Gehryren eraikinaren eraikuntzaren oroitzapenak ekarriko dituzte bueltan, eta avatarren bidez hezurmamituta ikusiko dira Museoa eta bertako obretako batzuk osatzen dituzten materialak. Lanbroa, alabastroa zein titanioa gorpuztu egingo dira pantailetan, eta koreografia kolektibo batean dantzan arituko dira dantzariekin eta parte hartzen duten Lagun guztiekin batera.

Bideoa eta performancea uztartuz, eta eskaneatze- eta renderizazio-prozesuen bitartez, artistaren gorputza, mugimenduan, fikziozko munduetako izaki bilakatuko da. Zuzeneko dispositibo batek metodologia hori erreplikatu du performance osoan zehar, eta bai parte-hartzaileak bai haiek osatutako gorputz kolektiboa pantailetan islatuta geratzea ahalbidetuko du, haiek ere avatar materiko bihurtuta.

## **Denontzako BBKartea (urriak 25-abenduak 2)**

Guggenheim Bilbao Museoa

Urriaren 25etik abenduaren 2ra bitartean *Denontzako BBKartea* kanpaina garatuko da. 25. urteurrena ospatzeko ekimen horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek dohainik bisitatu ahal izango dute Museoa. Sortu zenetik Museoaren Babesle Estrategikoa izan den BBK erakundeak babestua, ekimen horren nahia zera da, gizarteari esker ona helaraztea eta parte sentiaraztea Museoarekiko erakutsi duen atxikimenduagatik, izan ere, horixe izan da urte hauetan guztietan erakundeak izan duen arrakastaren giltzarria.

Sarrerak urritik aurrera erreserbatu ahal izango dira.

## Joaquín Achúcarroren errezitaldia (azaroak 3)

Museoko Atria

Museoaren urteurrenaren barruan eta Joaquín Achúcarro pianista handiaren 90. Urtebetetzearen ospakizunarekin bat etorriz, maisu bilbotarrak errezitaldi bat eskainiko du Atrioan, Museoa inauguratu zenean, 1997an, eskaini zuen emanaldi ahaztezin hura gogora ekarriz.

## Art & Music kontzertuak (azaroak 19, abenduak 17)

Museoko Atria

Museoak Art & Music izeneko kontzertu-ziklo bat aurkeztuko du, eta bere bitartez musika-proposamen berri bat eskainiko du abangoardiako artistekin, Museoaren arkitekturaren eta bertako erakusketen testuinguruan. Ekimen hori azaroan hasiko da 25. urteurrenaren baitan, eta datorren urtean zehar luzatuko da. Azaroko eta abenduko aurreneko edizioetan bi proposamen artistiko handi bilduko ditu: Mastodonte eta El Niño de Elche & Refree, hurrenez hurren.

## Immersion (abenduaren 3tik 11ra)

Museoko Atria

Urteurrenari azkena emateko *Immersion* eskainiko da. Doako ikuskizun hori, Seguros Bilbao babesle duena –Grupo Catalana Occidenteren konpainia eta ireki zenetik Guggenheim Bilbao Museoaren Babeslea– eskala handiko mapping proiektio bat da, publikoari Museoaren barrualdean murgilaraziko duen esperientzia bat bizitzea ahalbidetuko diona. 2017an Museoaren 20. urteurrena ospatzeko 59 Productions estudio britainiarrak Frank Gehryren eraikineko fatxadaren gainean proiektatzeko asmatu zuen *Reflections* ikuskizunaren jarraipen gisa sortua da.

Orduko hartan eraikinaren gainean kontatu zen Museoaren historia barrualdera sartuko du *Immersion* ikuskizunak, Atrioko forma organikoak mihise moduan baliatuta.

Museoaren historian izan diren mugarri garrantzitsuenen ibilbideari jarraituz eta jatorrizko soinu-bandan inspiratuta, *Immersion*ek argi eta soinu inguratzaileen proiektio-ikuskizun berezi baten erdian jarriko du publikoa.

Sarrerak Museoaren webgunean erreserbatu ahal izango dira azaroan.

## 25. urteurrenari lotuta orain arte egin diren proiektuak:

Arlo artistikoan:

- Monira Al Qadiri: Laurden sakratua* (martxoak 10–ekainak 12)
- Jean Dubuffet. Ospakizun bizia* (otsailak 25–abuztuak 21). Babeslea: BBK
- Motion. Autos, Art, Architecture* (apirilak 8–irailak 18). Babesleak: Iberdrola eta Volkswagen Group.
- Serra/Seurat. Marrazkiak* (ekainak 9–irailak 6)
- O Horizontea. The Otolith Group* (ekainak 23–urriak 9)
- Basque Artist Program* erakusketa-proiektua (uztailak 8–irailak 6)

# ġġ GUGGENHEIM BILBAO

Arlo **kulturalean eta ospakizunari lotuta:**

**TopArte programako 18 ekitaldi:** Loraldia jaialdia, Zinegoak, eta Bilbao Blues Festivalen lehenengo edizioa, besteak beste. Laster: FAB, Dantzaldia, MEM, ACT eta beste zenbait jaialdi.

**Musika-emanaldien programa:**

-*Hamar*, Gabriel Erkorekarena (apirilak 30 eta maiatzak 1)

-*Mundua museo bat da*, Kirmen Uriberekin, Bilboko Koral Elkartarekin eta Euskadi Brass taldearekin (maiatzak 11 eta 12)

-*Bi urteurrenetarako kontzertua*, BOS-Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin (ekainak 18). Babeslea: Fundación EDP.

-*Deabru beltzak: Symfeuny* (ekainak 24)

**Informazio gehiago:**

Guggenheim Bilbao Museoa  
Komunikazio eta Marketin Saila  
Tel. +34 944 359 008  
[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)  
[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)